

ALEMANIAKO SAJONIA ESKUALDEAK INTERESA ERAKUTSI DU GIPUZKOAKO ENPRESENGAN

Gipuzkoako Bazkondeak makina erreminta, ekipo-ondasuna, automobilgintza eta energia serkoreko Gipuzkoako hornitzaileekin lan egiteko interesa erakutsi duten hogei enpresa alemaniar baino gehiago identifikatu ditu.

Donostia - 2019ko otsailaren 22a

Alemaniano Sajonia eskualdeko Leipzig hirian, otsailaren 5a eta 8a bitartean, izandako Industria Azpikontratazioko *Z FERIA*-an parte-hartu ondoren Gipuzkoako Bazkondeak 25 enpresa-erosle alemaniar identifikatu ditu makina erreminta, ekipo-ondasuna (papergintza), automobilgintza eta energia serkoreko Gipuzkoako hornitzaileekin lan egiteko interesa erakutsi dutenak. Aurki, enpresa hauetako batzuk Gipuzkoara etorriko dira Gipuzkoako Bazkondeak aurkeztu dizkieten hornitzaileak izan daitezkeen enpresen produkzio lantegiak ezagutzera.

Z FERIA Alemaniano azpikontratazio industriara zuzendutako feria bat da, Europa osoko bezero eta hornitzaileentzat ezinbesteko hitzordua. Feria, bi urtero antolatzen da Sajonia eskualdeko Leipzig hirian. Eskualde honek ekipo-ondasunen fabrikazioan espezializatutako industria tradizio luzea du, bi Alemaniak elkartu zirenean industrial berpizte bat izan zuen, automobilgintza sektoreran bati bat. Gaur egun, makineria fabrikazioari zuzendutako industrien kopuruak 400 enpresa gainditzen ditu.

Feriak iraun duen lau egunetan, Gipuzkoako Bazkondeak egiaztatu ahal izan du kalitate eta manufaktura kontuetan adituak izateari lotutako herrialde-markak Sajoniako eskualdeko enpresentzat erakargarria dela. Alemaniano eskualde honetako enpresek interesa handia adierazi dute Gipuzkoako eta Euskadiko enpresekin kontaktua eduki ahal izateko.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Iruñe Bengoetxea

ibengoetxea@camaragipuzkoa.com

943 000 310 / 688884347